



Ixa taldeko zenbait kide, atzo, Informatikako Fakultatean. / JESÚS URRARTE

Informatika euskalduntzen

ALEX FERNÁNDEZ
EHUko Informatika Fakultateko Ixa taldeak hizkuntza aztertzen eta erabiltzen lagunduko duten tresna informatikoak garatzeko asmatan lan egiten du eta euskararen tratamendu konputazionala beste hizkuntzenarekin parekatzen saiatzen da. Lengoaia eta Sistema Informatikoak Sailean hamar urteik gora daramatza lanean 24 pertsonak osatutako talde honek, eta hainbat tresna eta prototipo hizkuntzaren arlo guztietan landu ditu urteetan zehar. Udan prest izango du Euskararen Datu Base Lexikala (EDBL), taldeak sortu dituen beste sistema batzuen oinarri bihurtu dena eta etorkizuneko analisi sintaktiko-semantikoko ere erabiliko dena.

Nahiz eta hasiera batean, duela zortzi urte, zuzentzaile ortografikoaren euskarri gisa garatu zen, denboraren poderioz EDBL helburu anitzetarako erreminta aproposa zela argi geratu zen. Datu base hiru 70.000 hitz inguruz osaturik dago, hiru atal nagusitan banatuta: hiztegi-sarrerak, edozein hiztegi konbentzionalen aurki daitezkeen bezalakoak; aditz-formak eta morfema "ez-independenteak", bakoitza bere informazio morfologikoarekin. Gainera, hizkien grafia estandarra jakiteko erabil daitezke, Euskaltzaindiaren azken arauak biltzen dituelako. Ez da beharrezkoa bilatzen ari den hizkiaren grafia jakitea, sistema berak proposamen batzuk ematen dituelako, deklinabideak eta forma dialektalak kontuan izanez. Hizkuntza erreminta gisa erabiltzen duten profesional askoren eskakizunak jaso ondoren, datu base hori doan kontsultatzeko moduan azalduko da, taldearen web orrian, hain zuzen (<http://ixa.sii.ehu.es>).

Xuxen-en bertsiio berria

Ixa taldeak beste programa interesgarri baten azken bertsiioa ateratu berri du, haren web orrian ere eskuragarria dena: Xuxen II euskarazko zuzentzaile ortografikoa. Bere helburua euskaraz idatzitako testuen akats ortografikoak detektatu eta zuzentzea

EHUko Ixa taldeko kideek euskararen tratamendu informatiboan lan egiten dute

da eta Word, Power Point eta Excel programetan erabil daitezke. Ixa taldeko Arantza Díaz de Illarrazaren esanetan, bi hobekuntza nagusi daramatza: azken bertsiio honek Euskaltzaindiak ateratzen dituen arau berriak bereganatzen ditu eta arinago dabil. Programa horrek ez du akats sintaktiko edo semantikoko detektatzen, eta euskaratuaren erabilpena bultzatzen duenez (Euskaltzaindiaren azken eraba-

Taldearen eraketa

Arlo asko ukitzen dituen, atal bakoitzeko arduradun bat dago: linguistikak eta informatikariak. Izen guztien artean, Eneko Agirre, Iñaki Alegria, Xabier Arregi, Xabier Artoleta edota Kepa Sarasola aurki ditzakegu informatikariaren aldetik, eta Izaskun Aldeizabal eta J.M. Arriola lan linguistikoen arloan.

Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministeriotik diru-laguntza jasotzen dute. Gainera, Baiónako Hizkia taldea, Marylandeko Unibertsitate edota Elhuyar-ekin ere kolaboratzen dute. "Gure ikerketak beste batzuetan oinarrituta daude eta mundu mailan egiten diren kongresuetan aurkezten eta kontrastatzen ditugu. Mugimendu handia dago hizkuntza minorizatuen inguruan eta horretan guk jarraitu dugun estrategia eredu gisa erabil daitezke", dio Díaz de Illarrazak.

Etorkizunari begira egitasmo ugari daukate: Internet-erako tresnak, hiztegien erabilera errazteko tresnak, itzulpen automatikoko laguntzak edota Gramatika zuzentzaileak, besteak beste.

kiak barne) ez ditu onztatzen ematen forma dialektalak, nahiz eta batzuk ezagutu eta beren ordeko estandarra proposatu. Programa hori ere doan eskura daiteke, bai taldearen bai

Eusko Jaurlaritzaren web orrian (<http://www.euskadi.net>). Bertsiio hau PC-Windows motako ordenadoreetan baino ez dabil eta Pentium prozesadore eta 32 MB-ko memoria behar ditu gutxienez. Horrelakoetan, Office-aren mekanismoen bidez euskaratu auzeratu behar da dokumentuaren hizkuntza gisa.

Esan bezala, Xuxen II programak zuzentzaile ortografikoa baino ez ditu egiten. Díaz de Illarrazaren ustez, "hizkuntza gure bezalaxe erabiliko duen sistemarik ez da inoiz lortuko. Beraz, gure erroka hizkuntza erabiltzeko eta aztertzeko langurariak izan daitezkeen tresnak nola sortu daitezkeen da".

Lengoiaren beste arloak betetzeko, berriz, beste aplikazio ezberdin batzuk behar dira, eta horretan dihardute, batzuetan beste erakunde eta ikerketa-taldean laguntzarekin. Euslem lematizazioa Ixa taldea eta UZEI erakundearen artean burutzen ari da. Egitasmo horrek testu bat hartzen du eta hitz guztien erroka ematen du, bakoitzaren kategoria ere zehaztuz.

"Euskaraz bezalako hizkuntza batentzat oso oinarri inportantea da edozein testu-indexazio egiteko, Interneteko informazio bilaketetan adibidez". Díaz de Illarrazak dioen bezala. Idazkide sistemak ikasleek ikaste-prozesuari buruzko zenbait ezaugarri gordetzen du: hizkuntza maila, ikasleak gustukoak duen hainbat ikaste-estrategia, ama-hizkuntza, etab.

ITEM proiektuan euskarra, katalana, gaztelania eta ingelesta tratatzeko tresnak eskaintzen dira. Horretarako, Kataluniako Unibertsitate Politekniko, Bartzelonako Unibertsitate Zentral eta UNED-eko ikerketa talde batzuekin elkarlanean ari dira. Internet-eko arloan, Jalgi enpresaren web zerbitzarian (<http://www.jalgi.com>) euren tresnak integratzen ari dira informazio-bilatzaile batentzat.

Ana G.


IVÁN IGARTUA

Bakarrik sentitzen zen eta lagunak egin nahi zituen. Ez zuen besterik esaten. Posta-kutxatila zenbakiaren ondoan Ana G. jartzen zuen. Orain ez dakit zergatik jo nuen iragarkien atalera, notiziez aspertuta nengoelako, edo, agian, beren nahiak eta beharrak azaltzeko gai ziren pertsonen ausardia dastatzearren. Baina uda hasierako arratsalde hartan boligrafoa hartu eta lehenengo gutuna idatzi nion Ana G.-ri. Ez zen beste munduko gauzarik, nire burua aurkeztu eta gustatzen zitzaidanaren berri eman nion, konbentzimendu askorik gabe. Gutuna bidaltzeko unea, idatzitako esaldi batzuk etorri zitzaizkidan gogora, eta zentzugabekeriak ez zirenak inozokeriatzat jo nituden. Etxera itzuli eta gutun hori pusketetan paperontzira botatzeko zorian egon nintzen. Hala ere, bidali egin nuen.

Ana G.-ren estreinako erantzuna handik lau bat egunera jaso nuen. Nire gutuna hotzegia iruditu zitzaioala esaten zidan, baina, lerroen azpitik irakurriz gero, somatu ahal zitekeela oso lagun zintzo eta irekia izango nintzela. Bere ziurtasunak larritu egin ninduen nolabait, azken finean nik gutun bat soilik bidali bainion, baina erantzunaren bigarren zatian irakurri nuenak erabat ahaztarazi zizkidan hasierako zalantza horiek. Amodioan izandako gorabeherak eta bakardadea gaingiditzeko bere saioak azaltzen zituen, inolako lotsa izpirik gabe. Hurrengo egunean idatzi nuen gutunean animatu egin nuen neska eta, bide batez, nire laguntza eskaini.

Berak ezertxo ere eskatu gabe neu ere hasi nintzen nire bizitzaren pasarte batzuk kontatzen, baten aitormenek gero entzulearenak bultzatzen dituzten modu berean. Nireak, hala ere, ez ziren Ana G.-renak bezain sakon eta irekiak, hasieran behintzat. Gero bai, egia da, gero eta gehiago kontatzen nion, sekula inori esango ez niokeena ere azaldu arte. Hilabete gutxiaren buruan gutun hain beharrezko bihurtu ziren nire eguneroko bizitzan. Azkenik ulertu nuen aurpegiak gabeko neska hartaz maitemintzen hasia nintzela: egia esan, hori ulertu nuen momenturako denbora dezente neraman, seguraski, maitemintzuta.

Bere bizitza ondo asko ezagutzen nuela uste nuen, nirea baino hobeto (bere gutunak beti izan dira luzeagoak eta mamitsuagoak), eta pentsatzen nuen, urte erdi igaro ondoren, ordua zela elkar ikusi eta fisikoki ezagutzeko. Berak ez zuen nahi, behin eta berriz esan zidan hobe zela gure harremanak paper eta letrazko mundu horren barruan uztea, hortik irten gabe. Elkarriketaren aurreko nire azken gutunak nahikoa ilun eta tristeak izan omen ziren, ez azkenean baietz esan zuen eta zentro aldeko taberna batean elkartzea erabaki genuen urtarillaren azken aurreko egunean.



Donostiako taberna baten kanpokaldeko irudia. / JAVIER HERNÁNDEZ

Urduritasuna ezin izan nuen baretu tabernan sartu arte. Ordua iritsi baino bi minutu lehenago heldu nintzen eta barruan mutilik baino ez zegoen. Berehala bi neska sartu eta kamareroarekin hasi ziren solasean. Pareta ondoan zegoen mahai batean eseri eta aldamenekoei geratu nintzen begira. Arratsalde hartan ez zen gehiago gertatu. Ordu erdi itxoin eta etxera joan nintzen. Ana G. ez zen agertu.

Hurrengo asterako egin genuen zita elkarri bidali genizkion gutunetan. Barkamena eskatu zidan tabernara joateko ausartu ez izanagatik. Begi bistan zen ni baino urduria-ago zegoela. Tabernan sartu nintzen bigarren aldia toki neskez beteta ageri zen. "Bera hurbildu beharko da", pentsatu nuen, nire lana dudarik gabe askozaz zailagoa izango baitzen. Baina mutil bat ondoratu zitzaidan, aste bete lehenago mahai batean bakarrik eserita zegoena. Nire izena esan zunean, harrituta begiratu nion, ez bainintzen oroitzen ezagun hartaz. "Ez, ez, orain arte ez dugu elkar ikusi. Ana G. naiz".

Karlos eta biok oso adiskide onak gara. Eguneroko ikusten dugu elkar. Berak esatu du Ana G.-ren gutunak idazten eta nik, berriz, erantzuten, neska hura baita, aldi berean, Karlosek izan nahiko zukeen pertsona eta nik eduki nahiko nukeen neskalaguna. Joko honek bizirik mantentzen gaitu, baina ez dakit zenbat iraun dezakeen.